



**BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO EUSKARA ETA KULTURAKO FORU SAILAREN ETA
HABEREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA “EUSKARA ESKURA TXARTELA”
DERITZON EGITARUAU 2017AN ABIAN JARTZEARI BURUZKOA.**

82/2017 LGAKZ – LT

AURREKARIAK

- I. 2017ko ekainaren 29ko datarekin sarrera eman zitzaien Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritza honetan goian aipatutako hitzarmen proiektuaren Legezketasun Txosten eskariari.

- II. Eskaria ondoren aipatzen diren agiriek osatzen dute:
 - HABEko Aholku Juridikoko atal-arduradunaren txosten juridikoa.
 - HABEren zuzendari nagusiaren memoria.
 - HABEko kudeaketa zerbitzuburuaren memoria ekonomikoa.
 - Hitzarmen- zirriborroa.

- III. Txosten hau, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen 71/2017 Dekretuaren 14. artikuluan atxikitako eginkizunetan sustraitzen da, bai eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 13. artikuluan ezarritakoan.

EGITE-BIDEAK

- IV. Aldez aurretik aztertu behar den gauza zera da: proiektu hau sortzeko erabili den prozedura legearekin bat datorren ala ez. Horretarako, lehenik, bide hori zerk eta nola arautzen duen jakin behar dugu.

- V. Galdera honi behar den erantzun egokia HABEKO Aholku Juridiko atal-arduradunak ematen dio luzatu duen txostenean eta dionarekin bat egiten dut. Ondorioz, bertan aipatutakoak kontutan hartu beharko dira.

PROIEKTUAREN AZTERKETA

- VI. Hitzarmena sinatzen dutenak dira, alde batetik eta HABEren izenean, Kultura eta Hizkuntza Politikarako Sailburua eta, bestetik, Euskara eta Kulturako Foru Diputatua, Bizkaiko Aldundiaren ordezkarietan.
- VII. Hitzarmenak azalpen zatian lau atal ditu; xedapenean, berriz, zortzi; eta eranskin bat.
- VIII. Hitzarmenaren Bizkaiko Foru Aldundia eta HABEren arteko lankidetzaz-esparru modura ezarri da 2017an Euskara Eskura Txartela (EET) programa martxan jartzea.
- IX. Kontutan izanik, alde batetik, Foru Aldundia dela programaren kudeatzailea eta hitzarmenak ez diola HABEri inolako kostu ekonomiko gehigarriarik sortuko; eta, bestetik, aipatu dudan moduan, erabat bat nentorrela HABEko aholku juridikoko arduradunak luzatutako txosten juridikoarekin, ondoren aipatuko ditudan hiru gai hauetaz mintzatuko naiz bakarrik.
- X. Laugarren xedapenean agertzen denez, HABEK ondorengo egiteko konpromisoa hartzen du: “dagozkien mailak gainditu eta haiei lotutako ziurtagiriak lortu dituzten ikasleen zerrenda prestatzea (...)”.

Hori horrela, zerrenda horiek prestatzerakoan kontutan hartu beharko dira 15/1999 Lege Organikoak eta 2/2004 legeak datuen tratamenduari buruz aurrekusten dituzten baldintzak eta, horatz, komenigarria litzateke hitzarmenak berariaz adieraztea baldintza horiei adituko diela.

- XI. Bestalde, bostgarren xedapenean jarraipen batzordearen eginkizunak aipatzen dira. Hortaz, betebeharraren artean, Sektore Publikoko Araubide Juridikoa xedatzen duen

urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49 e),f) eta 52.3 artikuluan aurrikusitako aginpide guztiak agertuko beharko dira, derrigorrez,.

- XII. Bukatzeko, zortzigarren xedapenean “interpretazioaz sortzen diren zalantzak argitzeko” Bizkaiko Jaurerriko Abokatuen Bazkunaren arbitrajea zuzentzea aurrikusten da. Neurri hau, zuzen-zuzenean, lehen adierazitako 49.f) artikuluan ezarritakoaren aurka doa (Atal horrek dio: “Este mecanismo resolverá los problemas de interpretación y cumplimiento que puedan plantearse respecto de los convenios”).
- XIII. Aipatutako guztia kontutan izanik, hitzarmenak legea betetzen duela adierazten dut.

Hau da luzatzen dudana txostena, Vitoria-Gasteizen 2017ko uztailaren 11an